

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Desgaitasuna, desberdintasuna eta maitasuna

Desgaitasuna. Pelikulak geure bizitzan zenbait arloetan pertsona guztiek ditugun gaitasunei eta desgaitasunei buruz gogoeta egitea ahalbidetzen digu.

Desberdintasuna. Pelikulan zehar «desberdinak» bezala hartzen diren pertsonak agertzen zaizkigu, eta bere inguruko pertsonak horiekin harremanetan nola jartzen diren modu desberdinak ikus ditzakegu.

Maitasuna. Pelikulan gurasoek euren seme-alabekin dituzten harremanak eta beren arteko maitasun eta ezinikusi sentimenduak ikusi ahal izango ditugu.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gudan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Desgaitasunari buruz: Zer da desgaitasun bat? Nola jartzen gara harremanetan pertsona desgaitu batekin? Ber egaitasunak ikusten badakigu?
- Desberdintasunari buruz: Zergatik esaten dugu pertsona batzuk «desberdinak» direla? Pertsona berdinak al daude?
- Maitasunari buruz: Pertsona guztiek dugun ahalmena al da? Nola neurtzen da?

...pelikula ikusi ondoren

- Zertan datza Samen desgaitasuna? Eta zein dira bere gaitasunak? Nola bizi du Lucik bere aita «desberdina» izatea? Nola erlazionatzen da jendea Samekin? Nola ikusten dute?
- Ritak Sami esaten dio: «Minusbaliatu, desgaitua, atzeratua... ez dakit nola deitu». Eta Samek erantzuten dio: «Sam, Sam dei nazakezu». Ze eragin dauka Ritak Samen bizitzan?
- Nolako da gurasoen eta seme-alaben arteko harremana pelikulan? Sam aita ona al da? Sam gai al da bere alaba maitatzeko? Eta honetaz arduratzeko?

Pello Sarasuaren laguntzarekin.

Yo soy Sam

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: I am Sam.

URTEA: 2001.

IRAUPENA: 132 min.

HERRIALDEA: AEB.

ZUZENDARIA: Jessie Nelson.

AKTORE-ZERRENDA: Sean Penn, Michelle Pfeiffer, Dianne Wiest, Dakota Fanning, Richard Schiff, Doug Hutchison, Loretta Devine, Laura Dern.

EKOIZPEN-ETXEA: Bedfor Falls company / Red Fihs, Blue Fish Films.

Sinopsia

Sam Dawson, desgaitasun psikikoa duen lagunak bere alaba txikiaren zaintza mantentzeko borroka egin beharko du, Estatuaren ustez bere hezkuntzaz arduratzeko gai ez delako. Bere defentsaz izen handiko abokatu bat arduratuko da. Emakume honen hasierako interesik eza eta hoztasuna aldatu egingo da Sam ezagutu eta aita bezala dituen eskubideak defendatzeko erabaki sendoa egiaztatu ondoren.

Cine para **vivir y convivir**

Yo soy Sam

